



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2008ko irailaren 18a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:07 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:47

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDAA

1. Irakurri eta onartzea, egoki bada, Udalbatzarrak 2008ko ekainaren 24an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
2. Onartzea, egoki bada, Orioko 8. sektorean —Munto— ikastetxe bat eraikitzeke helburuarekin Orioko Udalaren lursail baten gaineko lurrazal-eskubidea emateko baldintzen orria.
3. Lehen onarpena ematea, egoki bada, honako udal ordenantzaren aldaketari: bizitegitarako lurzoru urbanoko esparru kontsolidatu jakinetan dauden lokalak erabilerara tertziariorik bizitegitarako erabilerara aldatzeko jarduketak arautzen dituen udal ordenantza.
4. Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. areari —Dike— dagokion ekimen pribatuko ordenamendu urbanoko Plan Berezia.



5. Eugenio Cotado Iturainek Orioko Udaleko zinegotzi karguari uko eginez aurkeztu duen idatziaren berri ematea.
6. Alkateak egindako delegazioaren berri ematea, Udaleko Kirol batzorde informatzailearen presidentzia dela eta.

ESAN-EGINAK

Aztergai zerrenda irakurtzen hasi aurretik, Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: Eugenio Cotadok zinegotzi karguari uko egin dionez, ezin duela udalbatzarraren bilkura honetan parte hartu eta udalbatzarraren aretoa utzi behar duela. Gauza bera esaten du Iñaki Garcia zinegotziak ere (EB-B/Aralar) eta, gainera, honako hau gehitzen du: Eugenio Cotadok zinegotzi karguari uko egin zion momentutik utzi egin diola zinegotzi izateari eta Udaleko Kirol batzorde informatzailearen buru izateari eta, beraz, egun horretatik aurrera ezin duela inolako ordainsaririk jaso.

Alkateak eskatuta, udal idazkariak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: bere ustez, Goiburu eta Garcia zinegotziek esan dutena ez dator bat indarrean dagoen araudiarekin, zeren eta, Hauteskunde Batzorde Zentralak behin eta berriz adierazitakoaren arabera, indarrean dauden legeek ezartzen dute zinegotzi karguaren uko egitea idatziz aurkeztu behar dela, zinegotziaren sinadurarekin, eta, ondoren, Udalbatzarrak onartu behar duela. Udalbatzarrak onartu beharra dauka zinegotziaren uko egitea, ordezkaritza kargua borondatezkoa baita, eta ez nahitaezkoa; beraz, Udalbatzarraren egitekoa da jakinaren gainean geratzea eta uko egite hori onartzea. Udalbatzarrak zinegotziaren uko egitea onartzen duenean, zinegotzi horrek utzi egiten ditu karguari dagozkion eskubide eta betebeharrak, nahiz eta hurrengo hautagaiak oraindik kargurik hartu ez. Beraz, kargu uzteak indarra hartzen du behin Udalbatzarrak horren berri jakiten duenean eta, beraz, une horretara arte, zinegotzia bere karguaren eskubide eta funtzio guztien jabe da.

Bukatzeko, udal idazkariak adierazten du Udal honen ohitura izan dela orain arte zinegotzien kargu uztea udalbatzarraren aztergai zerrendako azken gaia izatea eta, era horretara, aurrez esandako guztiagatik, karguari utzi nahi dion zinegotziak aukera dauka udalbatzarrean parte hartzeko, kargu uzteak ez baitauka indarririk udalbatzarra jakinaren gainean jartzen den arte.

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2008KO EKAINAREN 24AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: aktaren zirriborroko aztergai zerrendako 9. puntuan (*Onartzea, egoki bada, baldintza ekonomiko-administratibo partikularren orria, Orioko arrauneko teknifikazio zentro bereziarekin zerikusia duten hainbat zerbitzu kontratatzeko, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez; kontratatuko diren zerbitzuak hauek dira: arrauneko*



teknifikazio zentro bereziaren exekuzio proiektua idaztea eta zentro horren instalazioak berri eta handitzeko obren zuzendaritza eta ikuskapena, dagozkion segurtasun eta osasun azterketekin, kalitate kontroleko programarekin eta azterketa hidraulikoarekin honako hau agertzen da: emandako botoa azaltzeko, Iñaki Iturainek esan duela ez daukala ezer baldintza-orriak onartzearen kontra; Iñaki Iturainek zehazten du ez dela, bakarrik, ez daukala ezer kontra, baizik eta horren alde dagoela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) egindako oharra ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2008ko ekainaren 24an egindako ohiko bilkurako akta.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO 8. SEKTOREAN —MUNTO— IKASTETXE BAT ERAIKITZEKO HELBURUAREKIN ORIOKO UDALAREN LURSAIL BATEN GAINEKO LURRAZAL-ESKUBIDEA EMATEKO BALDINTZEN ORRIA.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du goian adierazitako baldintza orriak Udaleko Hazienda batzorde informatzailearen aldeko diktamena jaso zuela 2008ko uztailaren 16an egindako bilkuran; baina Orioko Herri Ikastolak egin dion eskaria kontuan hartuta, Udalbatzarrari proposatzen diola gaia mahai gainean uztea, Herri Ikastolak baldintza orri horiei oharra egiteko aukera izan dezan.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, alkatearen proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

MAHAI GAINEAN UZTEA Orioko 8. sektorean —Munto— ikastetxe bat eraikitzeke helburuarekin Orioko Udalaren lursail baten gaineko lurrazal-eskubidea emateko baldintzen orriaren onarpena.

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) ez du bozketan parte hartzen.

Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta honako hau adierazten du: gaia mahai gainean uzteko erabakia ez dela hartu alkateak hala proposatu duelako, baizik eta Orioko Herri Ikastolak hala eskatu duelako, eta berak ere asmoa zeukala gauza bera proposatzeko, gaur arratsalderako eskatu zuten Bozemaileen Batzordearen ezohiko bilkura egin izan balitz.

3.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, HONAKO UDAL ORDENANTZAREN ALDAKETARI: BIZITEGITARAKO LURZORU URBANOKO ESPARRU KONTOLIDATU JAKINETAN DAUDEN LOKALAK ERABILERA TERTZIARIOTIK BIZITEGIETARAKO ERABILERARA ALDATZEKO JARDUKETAK ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA.



Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; gai hau Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzordeak eta Obra eta Zerbitzuetako batzordeak diktaminatu zuten, 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkura bateratuan, eta proposatzen den aldaketa honako hau da: ordenantzaren aplikazio esparrua zabaltzea, barnean har ditzan Anibarko Portuko bizitegitarako zona kontsolidatuan dauden eraikinetako beheko solairuak.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzordeak eta Obra eta Zerbitzuetako batzordeak 2008ko apirilaren 21ean egindako bilkura bateratuan emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko, Goiburu, Zinkunegi, Iturain (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** bizitegitarako lurzoru urbanoko esparru kontsolidatu jakinetan dauden lokalak erabilera tertziariorik bizitegitarako erabilerara aldatzeko jarduketak arautzen dituen udal ordenantzari, goian adierazitako zentzuan.

2.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikulua ezarritakoa betez, jendurrean jartzen da, 30 lanegunez, interesatuek Udalbatzarraren aurrean erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko aukera izan dezaten. Udal ordenantzaren aldaketa hori interesatuen eskura dago udal idazkaritzan, lanegunetan, 8:30etik 14:30era; jendurreko epea pasa eta ez bada erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, behin betikoz onartutzat joko da udal ordenantzaren aldaketa, beste erabakirik hartu beharrik gabe.

4.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL PLANEAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 14. AREARI —DIKE— DAGOKION EKIMEN PRIBATUKO ORDENAMENDU URBANOKO PLAN BEREZIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; plan berezi horren sustatzaileak honako hauek dira: Maria del Carmen Garate Tolosa, Casilda Garate Tolosa eta Jose Garate Tolosa, Dike izeneko etxearen (Aita Lertxundi, 11) jabeen izenean, eta Pedro Aiestaran Etxabe DIKE BERRI, SL entitate merkantilaren izenean; plan berezia Jose Maria eta Carmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzi dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2007ko abenduaren 27an erabaki zuen Orioko Arau Subsidiarioak berrikusteko agiriaren Eraberritutako Testua behin betikoz onartzea (2008ko martxoaren 17ko GAO, 54. zenbakia).

Udalak, 2008ko ekainaren 2ko 247/2008 alkate dekretuaren bidez, udal arkitektoak 2008ko maiatzaren 16an emandako aldeko txostena ikusita, eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95 eta 97 artikuluetan ezarritakoan oinarrituta, honako hau erabaki zuen:



1.- *LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. Jarduketa Urbanistikorako Arearen —Dike— hiri antolaketako plan bereziari.*

2.- *ESKATZEA hiri antolaketako plan berezi horren sustatzaileei udal arkitektoak 2008ko maiatzaren 16an emandako txostenean agertutako zuzenketak egitea, beste dokumentu bisatu baten bidez, eta eskatzea, baita ere, 14. Area horri dagokion azterketa hidraulikoa eta inundabilitatekoa. Bi kontu horiek nahitaez bete beharrekoak izango dira, aipatutako plan berezia behin betikoz onartzeko.*

3.- *Espedientea JENDAURREAN JARTZEA hogei eguneko epean, interesatuek aukera izan dezaten aztertzeko eta, egoki bada, alegazioak aurkezteko udalbatzarraren aurrean.*

4.- *BIDALTZEA aipatutako plan berezia Ingurumen Ministerioiko Itsasertzeetako Zuzendaritza Nagusiari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuari, dagozkien txostenak eman ditzaten.*

Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 14. Jarduketa Urbanistikorako Arearen —Dike— hiri antolaketako plan bereziaren agiriak, Udalaren lehen onarpena jaso eta gero, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zuen, 2008ko ekainaren 27an.

Bestalde, Ingurumen eta Landa Inguruneke Ministerioaren menpeko Itsasertzaren eta Itsasoaren Iraunkortasunaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman zion plan berezi horri 2008ko irailaren 16an, behin Zuzendaritza Nagusi horrek 2008ko uztailaren 29an emandako txostenean adierazitako zuzenketak egin ondoren.

Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean jarri zen hogei egunez, EL DIARIO VASCO egunkarian 2008ko ekainaren 10ean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (109. zenbakian) 2008ko ekainaren 9an argitaratutako iragarkien bidez.

Jose Luis Aiestaran Etxabek, DIKE BERRI SL entitate merkantilaren izenean, Udalean aurkeztu du (2008ko uztailaren 23ko sarrera-data eta 979 sarrera-zenbakia) *Oria ibaiaren Azterketa Hidraulikoa, Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 14. Jarduketa Urbanistikorako Areatik pasatzean* izeneko dokumentua; HIRIGINTZA SAK idatzi du azterketa hidrauliko hori eta bertan honako ondorioak jasotzen dira, hitzez hitz:

- *Del estudio de la situación actual del río Oria a su paso por el A.I.U. 14 “Dike”, se puede señalar que el mismo presenta problemas de inundabilidad para las avenidas de retorno de 100 y 500 años.*

- *En la situación futura, una vez rellenado el A.I.U. a la cota prevista en sus documentos de planeamiento urbanístico, no hay problemas de inundabilidad en el A.I.U. 14 “Dike” para la lámina de agua para una avenida de período de retorno de 500 años, respetando las condiciones medioambientales de sus alrededores, ya que, como se desprende de los resultados hidráulicos obtenidos, las láminas de agua para las situaciones actual y futura resultan coincidentes.*



Aipatutako espediente urbanistikoa jendaurrean egon zen epean bi alegazio aurkeztu ziren:

1.- Jose Mari eta Maria Isabel Aramendi Tolosak eta Loreto Intxauspe Arostegik aurkeztutako alegazioa (2008ko uztailaren 1eko sarrera-data eta 874. sarrera-zenbakia); adierazten dute ez daudela ados Plan Bereziaren partzelarioarekin: ez lursailen azalerekin eta ez azalera horien banaketa edo jabetza egiturekin.

2.- Jose Mari Alkorta Azkuek, Garate familiaren eta DIKE BERRI SL entitate merkantilaren izenean, aurkeztutako alegazioa (2008ko uztailaren 4ko sarrera-data eta 897. sarrera-zenbakia); ondoko bi oharrak egiten ditu udal teknikariak 2008ko maiatzaren 20an egindako txostenari buruz:

a) Txosten tekniko horretan diotenaren kontra, eskatzen du baimentzea sustatzaileek aurkeztutako Plan Bereziaren agertzen diren garajeko sarbideak.

b) Eskatzen du baimentzea teiltatu azpiko solairua etxebizitza independente gisa erabiltzea, baldin eta eskatzen diren bizigarritasun-baldintzak betetzen badira.

Lehen alegazioari buruz, egiten den baieztapenak (lursailen azalera eta azalera horien banaketa edo jabetza egitura ez datozela bat errealitatearekin) oinarri bakarra du: alegazioari erantsitako eskritoretan agertzen diren azalera; baina ez da arrazoitzen non dagoen Planaren partzelarioan jasota dauden neurketen errorea, eta hori ez da nahikoa aldaketa onartzeko.

Hala ere, Birpartzelazio Proiektuari dagokio, areako lursailen azalera kontuan hartuta, ordenamendu urbanistikoari dagozkion onurak eta kargak zuzen banatzea eta, beraz, Birpartzelazio Proiektuak argitu beharko ditu partzelarioan egon daitezkeen akatsak, teknikari gaitu batek tokian bertan egingo dituen behin betiko neurketetan oinarrituta.

Bigarren alegazioari dagokionez, udal arkitektoak txostena egin zuen 2008ko irailaren 16an; txosten horrek, hitzez hitz, honela dio:

Accesos a garaje

Debido a la configuración del Area 14. "Dike", el espacio público resultante de las viviendas es estrecho y alargado, siendo por ello muy importante la ordenación urbanística de todos los elementos situados en él.

Existe un grave problema de aparcamiento en la zona, y por ello se ha estimado la conveniencia de construir un aparcamiento público bajo el espacio libre central.

El acceso a los garajes públicos se sitúan habitualmente en espacio público y por ello no se entiende lo mencionado a este respecto en la alegación.

Por todo lo mencionado se desestima la alegación, y se mantiene la necesidad de crear una servidumbre en los accesos a garajes, de forma que puedan ser utilizados también como entrada al aparcamiento municipal.

Uso de vivienda de los espacios ajo cubierta



La ficha de las NNSS indica lo siguiente:

3.2.-USOS

Se admite el uso de vivienda en los espacios bajocubierta, ligados a la planta inferior, no como viviendas independientes, además de como trasteros anejos a las viviendas o para instalaciones o servicios comunes de las mismas.

En el artículo 72 de las Ordenanzas municipales se establecen las condiciones de uso de las plantas bajocubierta, indicando que en las edificaciones de sección igual o inferior a PB+3, se permitirá el uso de vivienda, de forma independiente, a las plantas inferiores, siempre que se cumpla las condiciones de habitabilidad.

Teniendo en cuenta lo mencionado en el artículo 72, propongo admitir la alegación realizada en cuanto a las plantas bajocubierta, siendo autorizable realizar viviendas independientes en esta planta, siempre que se cumplan las condiciones de habitabilidad y siempre que las instalaciones necesarias para la adecuación a la norma de accesibilidad de estas viviendas, no sobresalgan de la cubierta de los edificios.

Cabe recordar en este sentido que no se podrán aumentar los aprovechamientos ni el número máximo de viviendas establecidas en las NNSS.

Ikusita emandako txosten teknikoa eta hasitako espediente urbanistikoa, Udalbatzarrak, gaia eztabaidatu ondoren, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan ezarritakoa betez eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2-d) —in fine— artikulua ezarritakoa betez, eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2008ko irailaren 17an emandako diktamenaren bitartez egindako proposamenez, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genoba (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Belasko, Goiburu, Zinkunegi, eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **LAU ABSTENTZIO**]:

1.- **ATZERA BOTATZEA** Jose Mari eta Maria Isabel Aramendi Tolosak eta Loreto Intxauspe Arostegik aurkeztutako alegazioak, erabaki honen azalpenean jasota dauden arrazoiengatik.

Hala ere, Birpartzelazio Proiektuari dagokio, areako lursailen azalera kontuan hartuta, ordenamendu urbanistikoari dagozkion onurak eta kargak zuzen banatzea eta, beraz, Birpartzelazio Proiektuak argitu beharko ditu partzelarioan egon daitezkeen akatsak, teknikari gaitu batek tokian bertan egingo dituen behin betiko neurketetan oinarrituta.

2.- **ATZERA BOTATZEA** Jose Mari Alkorta Azkuek, Garate familiaren eta DIKE BERRI SL entitate merkantilaren izenean, aurkeztutako alegazioak, erabaki honen azalpenean jasota dauden arrazoiengatik, garajeetako sarbideak baimentzeari dagokionez, eta **ONARTZEA** teilatu azpiko solairua etxebizitza independente gisa erabili ahal izateari dagokionez, bizigarritasun-baldintzak eta irisgarritasun-baldintzak betez gero.



3.- **BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioen 14. Jarduketa Urbanistikorako Arearen —Dike— Hiri Ordenamendurako Plan Bereziari; plan berezi horren sustatzaileak honako hauek dira: Maria del Carmen Garate Tolosa, Casilda Garate Tolosa eta Jose Garate Tolosa, Dike izeneko etxearen (Aita Lertxundi, 14) jabeen izenean, eta Pedro Aiestaran Etxabe DIKE BERRI, SL entitate merkantilaren izenean; plan berezia Jose Maria eta Carmen Alkorta Azkue arkitektoek idatzi dute. Onarpena honako **BALDINTZA** honekin ematen zaio: plan bereziaren eranskin bat aurkeztu beharko da, udal arkitektoaren aldeko txostena jaso beharko duena, eta bete beharko dituena udal arkitektoak berak 2008ko maiatzaren 16an eta irailaren 16an egindako txostenetan ezarritako zehaztasunak.

4.- **BIDALTZEA** aurreko erabakiak aipatzen duen plan berezia Gipuzkoako Foru Aldundira, planeamendu urbanistikoaren erregistro administratiboan jaso dezan, argitaratu aurretik.

Plana indarrean jar dadin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 88. artikulua aurreikusitako ondorioak sor ditzan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin betiko onarpeneko erabakiaren eta arau urbanistikoen eduki osoa, berariaz adieraziz plan urbanistiko hori goian aipatutako erregistroan jaso geratu dela.

Behin betiko onarpenaren erabakia argitaratuko da, baita ere, lurralde historikoko hedapen handieneko egunkari(et)an.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak hartzen du hitza eta honakoa adierazten du: abstentzio botoa eman duela uste duelako Dikeko area horri bolumen handiagoa emateko aukera zegoela eta, hartara, babes ofizialeko etxebizitza kopurua gehitzeko modua izango zela. Adierazten du ez daukala ezer plan bereziaren kontra; baina, bere ustez, ez dela area hori behar bezala gestionatu.

5.- EUGENIO COTADO ITURAINEN ORIOKO UDALEKO ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGINEZ AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA.

Udaleko idazkariak hartzen du hitza eta adierazten du Eugenio Cotado Iturainek (Eusko Alkartasunako hautagaitzako zerrendaburua 2007ko maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan, eta zinegotzi hautatua) idatzia aurkeztu duela, Udalbatzarrari zuzendua, eta bertan honako hau adierazten duela: **UKO EGITEN DIOLA** Orioko Udaleko zinegotzi karguari, arrazoi pertsonalengatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 9.4 artikuluan ezarritako prozedura betez. Idatzian Eugenio Cotadok eskatzen dio Udalbatzarrari bere uko egitea onartzea eta ordezkoa izendatzea, Hauteskunde-Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 1991ko uztailaren 19an emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

Udalbatzarrak, bestalde, Juan Vicente Lasa Karrikaburuk aurkeztutako idatziaren berri jaso du. Juan Vicente Lasa Karrikaburu Eusko Alkartasunako hautagaitzako bigarrena



zen 2007ko maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan eta, idatzi horren bidez, **ONARTU EGITEN DU** Orioko Udaleko zinegotzi gisa izendatua izatea, Eugenio Cotado Iturainen ordezkari, Eusko Alkartasuna (EA) alderdi politikoa ordezkatzeko, Hauteskunde Araubide Orokorreko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 1991ko uztailaren 19an emandako aginduan ezarritakoaren arabera; adierazten du, baita ere, ez zaizkiola aplikagarri Hauteskunde-Araubide Orokorreko Lege Organiko horren 6., 177. eta 178. artikuluetan jasotzen diren ezin aukeratua izateko arrazoiak. Hori guztia, Juan Vicente Lasa Karrikabururi Orioko Udaleko zinegotzi hautatu izaera aitortzen dion kredentziala emateko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, indarrean dagoen araudian ezarritakoa ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- **ONARTZEA** Eugenio Cotado Iturainek Eusko Alkartasuna alderdi politikoko hautagaitzako zinegotzi karguari egin dion ukoa, eta jasotzat hartzea Juan Vicente Lasa Karrikaburuk udalbatzarrari aurkeztu dion idatzia, Orioko Udaleko Eusko Alkartasuna alderdi politikoko zinegotzi kargua onartuz Eugenio Cotado Iturainen ordezkari.

2.- **BIDALTZEA** udalbatzarraren erabaki honen hitzez hitzezko ziurtapena Madrilgo Hauteskunde Batzorde Zentralaren Presidenteari, Juan Vicente Lasa Karrikabururi Orioko Udaleko Eusko Alkartasuna (EA) alderdi politikoko hautagaitzako zinegotzi izaera aitortzen dion kredentziala eman dezan, kargu hori betetzeko, hutsik baitago Eugenio Cotado Iturainek aurkeztu duen eta Udalbatzarrak onartu dion kargu uzteagatik. Hori guztia, Hauteskunde Araubide Orokorreko Lege Organikoaren 182. artikuluan eta Toki Ordezkaritzako Karguak ordezkatzeko Hauteskunde Batzorde Zentralak 1991ko uztailaren 19an emandako aginduan ezarritakoaren arabera.

6.- ALKATEAK EGINDAKO DELEGAZIOAREN BERRI EMATEA, UDALEKO KIROL BATZORDE INFORMATZAILEAREN PRESIDENTZIA DELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Eugenio Cotado Iturainek kargua utzi duela-eta, Angel del Hoyo Bravo (EAJ) zinegotziaren esku utzi du alkateak Udaleko Kirol batzordearen presidentzia; alkateak adierazten du, nolana ere, bere asmoa dela batzorde horren presidentzia Juan Vicente Lasa Karrikaburu zinegotziari eskaintzea, behin kargua hartzen duenean.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,